

Sendotu
ALDIBEREAN



EUROPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza

UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo

*Gizarte Funtzak diruz laguntzen du programa, Euskal
Autonomia Erkidegoko 2014-2020 Europako Gizarte Funtza
programa eragilearen barruan*



SENDOTU ALDIBEREAN

programaren ebaluazioa

2015-2022 epea



YOUR
FUTURES
PARTNER

2023ko urtarrila


1. SENDOTU ALDIBEREAN PROGRAMA ERAGILEAREN DESKRIBAPENA



TESTUINGURUA, AURREKARIAK ETA HELBURUAK


2014an sortua da SENDOTU ALDIBEREAN programa, gizarte- eta lan-inklusioko proiektu integratua, helburu hau duena: oztupoak kentzea, lan-merkatutik urrutien dauden herritarrek gizarte-laguntza sendoak jasotzeari utzi eta enplegua lor dezaten.

ESPARRUA ETA OSAGAI ESTRATEGIKOAK



SENDOTU ALDIBEREAN ELKARTEAREN HELBURUAK GIZARTE-INKLUSIORAKO

01 *Gizarteratzeko aukerak eskaintzea bazterketa pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden herritarrei, gizarte- zein lan-inklusioko eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatuz.*



02 *Hauek sustatzea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat: babesa, arreta, laguntza juridikoa edo psikologikoa, lanerako orientabideak, trebakuntza eta informazioa.*

03 *Genero-indarkeriaren prebentzioa bultzatzea, eta herritarren sentsibilizazioa gai horrekiko.*

04 *Gizarte-berrikuntzako proiektuak eta jarduerak garatzea, gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko.*

(..) 1. SENDOTU ALDIBEREAN PROGRAMA ERAGILEAREN DESKRIBAPENA



DESKRIBAPENA ETA OSAGIAK

JARDUERAK

ENPLEGUA XEDE DUTEN TREBAKUNTZA-EKINTZAK garatzea, lan-merkatuaren eta pobrezia zein gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzat egokituak, haien gizarteratzea eta lanbideratzea sustatzeko ekonomia sozial eta solidarioaren eta enplegu arruntaren bitartez

ENPLEGUA XEDE DUEN LANBIDE-HEZIKETA



GIZARTERATZEKO ETA EKONOMIA SOZIALEKO ETA SOLIDARIOKO ENPRESAK SORTZEN ETA HAIEI EUSTEN laguntzea, batez ere bazterketa jasateko arriskuan daudenentzat enplegu-aukera berriak sortzen diren arloetan.

ESKU-HARTZE SOZIOAFEKTIBOKO ETA GIZARTE-LAGUNTZAKO EKINTZAK garatzea lan-merkatutik urrutien daudenentzat, haien gizarteratzearen eta lanbideratzearen oinarri izan daitezzen, enplegu- eta gizarte-zerbitzuen eta babes sozialeko beste sistema batzuen arteko koordinazioa sendotuz.

a GIZARTERATZE-IBILBIDE INTEGRATUAK

b HASTAPENOKO ETA LAN-AURREKO IKASKUNTZARAKO LANTEGIAK

Hartzaileak




(..) 1. SENDOTU ALDIBEREAN PROGRAMA ERAGILEAREN DESKRIBAPENA



(..) DESKRIBAPENA ETA OSAGIAK

SENDOTU ALDIBEREANEN ESKU-HARTZE EREDUAREN DESKRIBAPENA




2. EBALUAZIO-METODOLOGIA




EBALUAZIO-METODOLOGIA

Ebaluazio-xedeak



Ebaluazio-irizpideak




Ebaluazio-metodologia: plangintza mistoa

AZTERKETA KUANTITATIBOA

Programaren datu-baseetako 2015etik eta 2022ko ekainera bitarteko erregistroen eta emaitzen ustiapena (Lanbide eta Sendotuko aplikazioak).

Noiz egina: 2022ko urrian eta azaroan



DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA

Betearazte-epean sortutako informazioa: programa, jarduketa-fitxak, justifikazio-memoriak, emaitzei eta jarraipenari buruzko txostenak eta sortutako gainerako agiriak

Noiz egina: 2022ko irailean eta urrian

ELKARRIZKETAK ETA EZTABAIDA-TALDEAK

Elkarrizketak funtsezko eragileei, eta eztabaida-taldeak

Noiz egina: 2022ko azaroan eta abenduan

Ebaluazio-epea: 2015-2022KO EKAINA

24 PERTSONA ELKARRIZKETATU DIRA
11 EZTABAIDA-TALDE EGON DIRA,
ETA 105 PARTE-HARTZAILE

(..) 2. EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA EBALUATU BEHARREKO EKINTZAK



EBALUAZIOAREN LAN-ALORRAK


GIZARATERATZE-IBILBIDE INTEGRATUAK ETA LAN- AURREKO LANTEGIAK

1. XEDE-TALDEA

Lan-merkatutik eta gizartean integratzetik oso urrun dauden herritarrak. Zaila da pertsona horiek lanbideratzea, ez baita aski haiei gaitasun profesionalak ematea.

2. HELBURUAK

1. Arreta-prozesu eta esku-hartze **pertsonalizatua, partaidetzakoa eta kalitatekoa bermatzea.**
2. **Garapen integrala** lortzea (**pertsonala, familiarra eta soziala**), **gizarteratzea xede dela.**
3. **Lanetik kanpoko praktikak** sustatzea.
4. Pertsonak **lanpostuetara egokitzen** laguntzea.



5. TALDEKO EKINTZA SOZIOKULTURALAK

- **Gizarteratze-ibilbide integratuak.**
- **Oinarrizko gaitasunak** eskuratzeko ekintzak.
- Oinarrizko **gaitasun sozioedukatiboak.**
- Oinarrizko **gaitasun teknologikoak.**
- Elikadurari eta osasunari buruzko **gaitasun pertsonalak** eskuratzeko lantegiak.
- **Emakumeentzako** lantegi sozioedukatiboak, eta **ahalduntze-, alfabetatze- eta lidergo-ekintzak.**
- **Ibilbide profesionalei eta lanbideen aktibazioari** lotutako **gaitasun teknikoak.**

4. BALIABIDEAK

- Hezitzailea-Tutorea.
- Trebatzailea.
- Orientatzailea.
- Ekoizpen-teknikariak.
- Lantegiaren koordinatzailea.
- Lan-arloko bitartekaria-prospekziogilea.

3. JARDUKETAK

1. **Arreta, informazio eta aholkularitza indibidualizatua: tutoretza indibidualizatua.**
2. **Taldeko ekintza sozioedukatiboak.**
3. **Hastapeneko eta lan-aurreko ikaskuntza-lantegiak.**

(..) 2. EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA EBALUATU BEHARREKO EKINTZAK



(..) EBALUAZIOAREN LAN-ALORRAK

ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETA

1. XEDE-TALDEA

Bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden herritarrak: langabezia daudenak edo enplegu prekarioak dituztenak; ikasketarik gabeak, edo prestakuntza-maila eskasekoak; atzerritarrak; gutxiengo etnikoetakoak; osasun-arazoak dituztenak; euren ardurapean beste pertsona batzuk dituztenak; indarkeria-egoerak pairatu dituztenak; gizarte-laguntzak eskatu dituztenak...

2. HELBURUAK

1. Enplegagarritasuna sustatzea, pertsonak trebatzeko haien jarrerak eta gaitasunak garatuz, bai eta haien interesak, motibazioa, ezagutza eta kualifikazio profesionala ere.
2. Oinarrizko gaitasun profesionalak garatzea zenbait sektoretan.
3. Herritarrek titulazio ofizialak eta egiaztagiriak eskura ditzaten sustatzea.
4. Lanetik kanpoko praktikak sustatzea.
5. Pertsonak lanpostuetara egokitzen laguntzea.



5. ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA

- *TrebaKuntza egiaztagarria.*
- *TrebaKuntza ez-egiaztagarria eta oinarrizko gaitasun profesionalak:*
 - *Lanbideak.*
 - *GParen aurreko trebaKuntza.*
 - *Oinarrizko eragiketak.*
 - *Oinarrizko gaitasun profesionalak.*

4. BALIABIDEAK

- Hezitzailea-Tutorea.
- Trebatzaile teknikoa.
- Tutorea-Orientatzailea.
- Lan-arloko bitartekaria-prospekziogilea.

3. JARDUKETAK

1. Oinarrizko gaitasun profesionaletako trebaKuntza.
2. TrebaKuntza profesional ez-egiaztagarria.
3. TrebaKuntza profesional egiaztagarria.

(..) 2. EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA EBALUATU BEHARREKO EKINTZAK



(..) A EBALUAZIOAREN LAN-ALORRAK


GIZARTERATZEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESAK SORTZEA ETA MANTENTZEA

1. XEDE-TALDEA

Bazterketa pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan **herritarrak: langabeak** (iraupen luzeke langabezian daudenak, 25 urtetik beherakoak), **ikasketarik gabeak** edo prestaketa-maila eskasekoak, jatorri atzerritarrekoak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta familia-erantzukizunak dituzten emakumeak.

2. HELBURUAK

- Gizarteratzeko eta gizarte-ekonomiako enpresei dagokienez:** sortzen eta sendotzen laguntzea, eta **negozio-lerro berriak** garatzen ere bai; **aukerak sortzea enplegu berdearen eta zuriaren alorrean, nazioartekotze- eta berrikuntza-prozesuak bultzatzea; ESKrekiko konpromisoa sustatzea; merkatu babestuak eta merkatu zein klausula sozialak garatzea; sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak martxan jartzea, eta sarea indartzea.**
- Pertsonei dagokienez:** gizarteratze-kontratuen eta kontratatuen **kopuruari eustea eta/edo areagotzea, eta enplegarritasun-aukerak hobetzea.**



5. SORTUTAKO ETA LAGUNDUTAKO ENPRESAK

- *Gizarteratze- eta gizarte-enpresa berriak sortu dira.*
- *Negozio-lerro berriak gizarteratze- eta gizarte-enpresetan.*
- *Gizarteratzeko eta gizarte-ekonomiako enpresei eusteko eta haiek sendotzeko laguntza-jarduerak.*

4. BALIABIDEAK

- Ekintzen arduraduna / Jarduketa koordinatzen duen erakundearen Sendotuk duen arduraduna.
- Jarduketaren koordinatzailea.
- Lan-bitartekaria.
- Gizarte- eta gizarteratze-enpresen sustatzailea.

3. JARDUKETAK

- Enpresa eta lerro berriak sortzea.**
- Lehendik dauden enpresei eustea eta haiek sendotzea.**
- Pertsonei laguntzea.**

NOLAKO ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO TALDEETAN EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PE-AREN ESTRATEGIAK

SENDOTU ALDIBEREAN GUZTIZ BAT DATOR EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PROGRAMA ERAGILEAREN HELBURUEKIN, ETA ARRETAZ ARDURATZEN DA BAI LEHENETSI BEHARREKO TALDEEZ BAI HAIEN ARAZOEZ

TALDE ESTRATEGIKOAK

IBILBIDEAK

- Langabezian daudenak (iraupen luzeko langabezia barne dela), 25 urtetik beherakoak eta 45etik gorakoak
- Ikasketarik gabeak, edo lehen mailako ikasketak (HNSN 1), bigarren mailakoak (HNSN 2 eta 3) edo bigarren mailako ondorengoak (HNSN 4) dituztenak
- Migratzaileak eta jatorri atzerritarreko pertsonak
- Gutxiengo etnikoetako pertsonak
- Gizarte-prestazioak jasotzen dituzten pertsonak, edo gizarteko baliabide-sarearen laguntza behar dutenak
- Beren ardurapean beste pertsona batzuk dituztenak
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak
- Indarkeria-egoerak jasaten dituzten pertsonak
- Enplegu prekarioak dituzten pertsonak, edo enplegua zein kualifikazioa hobetu beharra daukatenak
- Bestelako bazterketa-mota batzuk pairatzen dituztenak: etxerik eza, ikasteko laguntzaren beharra eta abar

LAN-AURREKO LANTEGIAK

- Langabeak, barne direla iraupen luzeko langabezian daudenak
- Enplegu ezegonkorak dituzten pertsonak eta/edo infraenpleguak (arautu gabeko lanak) dituztenak
- 45 urtetik gorako pertsonak
- Ikasketarik gabeko pertsonak eta HNSN 1 maila amaitzen den adina gaindituta dutenak
- Migratzaileak, jatorri atzerritarreko parte-hartzaileak, gutxiengo etnikoetako kideak
- Etxerik gabeak edo bizileku-bazterketa jasaten dutenak
- Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak edo euren ardurapean senideak dituztenak
- Adinez nagusia den eta bere ardurapean seme-alabak dituen pertsona bakarreko familietako kideak

ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA

- Langabezian daudenak (iraupen luzeko langabezia barne dela), 25 urtetik beherakoak eta 45etik gorakoak
- Ikasketarik gabeak, edo lehen mailako ikasketak (HNSN 1), bigarren mailakoak (HNSN 2 eta 3) edo bigarren mailako ondorengoak (HNSN 4) dituztenak
- Migratzaileak eta jatorri atzerritarreko pertsonak
- Gutxiengo etnikoetako pertsonak
- Gizarte-prestazioak jasotzen dituzten pertsonak, edo gizarteko baliabide-sarearen laguntza behar dutenak
- Beren ardurapean beste pertsona batzuk dituztenak
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak
- Indarkeria-egoerak jasaten dituzten pertsonak
- Enplegu prekarioak dituzten pertsonak, edo enplegua zein kualifikazioa hobetu beharra daukatenak
- Bestelako bazterketa-mota batzuk pairatzen dituztenak: etxerik eza, ikasteko laguntzaren beharra eta abar

IDENTIFIKATUTAKO ARAZOAK

1

Langabeziaren areagotzea

25 urtetik beherako gazteen langabezia

Iraupen luzeko langabezia

Emakumeen lan-prekarietatea eta generoaren araberako soldata-arrakalaren handitzea

2

Enplegua eskuratzeko zailtasunak

Enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzte gazteek eta zenbait talde zaugarrik (**desgaituek, migratzaileek, 45 urtetik gorakoek eta abarrek**)

3

Pobrezia eta gizarte-bazterketa areagotzeko arriskua

Guraso bakarreko familiak, enplegu egonkorrik gabeko herritarrak, trebakuntza-maila eskasekoak, desgaituak, migratzaileak...

EKONOMIA SOZIALEKO ENPRESAK


- Langabezian daudenak (iraupen luzeko langabezia barne dela), 25 urtetik beherakoak
- Ikasketarik gabeak, edo lehen mailako ikasketak (HNSN 1), bigarren mailakoak (HNSN 2 eta 3) edo bigarren mailako ondorengoak (HNSN 4) dituztenak
- Egoera administratiboa erregularizatu duten migratzaileak; gutxiengo etnikoetako kideak
- Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak
- Euren ardurapean senideak dituzten emakumeak



(..) NOLAKO ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO TALDEETAN EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PE-AREN ESTRATEGIAK

6.755 persona artatu dira

2015etik 2022ko ekainera arte




PROGRAMA APLIKATZEKO ESTRATEGIAN EZARRITAKO HELBURUEI JARRAIKIZ, ZAURGARRITASUN-MAILARIK EDO BAZTERKETA-ARRISKURIK HANDIENAKO PROFILAK DITUZTENAK DIRA PARTE-HARTZAILEAK



(..) NOLAKO ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO TALDEETAN EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PE-AREN ESTRATEGIAK

6.755 PERTSONA ARTATU DIRA

a) PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA, URTEAREN, LURRALDEAREN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA




(*) 2022: lehen sei hilabeteak

BATEZ BESTEKO PARTE-HARTZAILE KOPURUA, URTEKO: 1.000




BIZKAIAN ARTATU DA JENDE GEHIEN (% 59); ARABAN, % 16, ETA GIPUZKOAN % 25.


BIZKAIAN, HANDIAGO DA GIZONEN EHUNEKOAK EMAKUMEENA BAINO.



LAU ERABILTZAILTIK BAT 44 URTEZ BEHEKOA DA; LAU EMAKUME ERABILTZAILTIK BAT, BERRIZ, 25-44 URTE BITARTEKOA.



PARTE-HARTZAILE KOPURUA, SEXUKA



	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
25 urtez azpikoak	% 9	% 31	% 23
25-44 urte bitartekoak	% 44	% 42	% 54
45-54 urte bitartekoak	% 30	% 18	% 17
55 urtekoak edo gehiagokoak	% 16	% 9	% 5


BIZKAIAN DAGO ERABILTZAILE GAZTE GEHIEN; ZAHAR GEHIEN, BERRIZ, ARABAN.



(..) NOLAKO ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO TALDEETAN EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PE-AREN ESTRATEGIAK



**ATZERRIAN JAIQAK DIRA
PARTE-HARTZAILEEN BI HEREN**

b) PARTE-HARTZAILEAK, SORLEKUAREN ETA EGOERA ADMINISTRATIBOAREN ARABERA



GIPUZKOAN DAGO ATZERRIAN JAIQAKO PARTE-HARTZAILE GEHIEN, ARTATUTAKO GUZTIEKIKO.


PARTE-HARTZAILEAK, SORLEKUAREN ARABERA



PARTE HARTZEN DUTEN GIZONEZKOEN % 71 DIRA ATZERRIARRAK; EMAKUMEEEN ARTEAN, % 54 DA PORTZENTAJEA.

ATZERRIAN JAIQAKOEN % 8K ESPAINIAKO NAZIONALITATEA DU.

PARTE-HARTZEKO UNEAN, EGOERA ADMINISTRATIBOA ERREGULARIZATU ZAIN ZEGOEN HIRUTIK BAT, GIZONEI EMAKUMEEI BAINO GEHIAGO ERAGITEN DIE EGOERA HORREK.







(..) NOLAKO ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO TALDEETAN EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PE-AREN ESTRATEGIAK


LANGABEZIAN ZEGOEN PARTE-HARTZAILEEN % 85; HAIETATIK % 45, IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAN.

C) PARTE-HARTZAILEEN SAILKAPENA, LAN-EGOERAREN ETA LAGUNTZA-BEHARRAREN ARABERA




GEHIXEAGO DIRA IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIAN DAUDEN EMAKUMEAK GIZONAK BAINO.

PARTE-HARTZAILEEN PORTZENTAJEA, HEZKUNTZA-MAILAREN ARABERA



OSO APALA DA PARTE-HARTZAILEEN HEZKUNTZA-MAILA: % 80 INGURUK EZ DU INOLAKO IKASKETARIK EGIN, EDO LEHEN MAILAKOAK BAKARRIK DITU. EMAKUMEEN ARTEAN, ARE HANDIAGO DA PORTZENTAJEA, ETA % 26K BAKARRIK DITU LEHEN MAILAKOEZ GAINDIKO IKASKETAK.



PROGRAMAN ALTA EMAN ZUTENEAN, DSBE-AREN HARTZAILEA ZEN PARTE-HARTZAILEEN IA HIRUTIK BAT.




(..) NOLAKO ERAGINA DUEN LEHENTASUNEZKO TALDEETAN EAE-KO 2014-2020 EGIF-AREN PE-AREN ESTRATEGIAK

PARTE-HARTZAILEEN % 15EK EZ DU BIZILEKURIK, ETA LAUTIK BATEK BERE ARDURAPEKO PERTSONAK DITU; FAMILIEN % 5, BERRIZ, GURASO BAKARREKOAK DIRA.

d) PARTE-HARTZAILEEN PORTZENTAJEA, BESTE EGOERA ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN BESTE ADIERAZLE BATZUEN ARABERA

GIZARTE-BAZTERKETAKO BESTE EGOERA BATZUK JASATEN DITUZTEN PARTE-HARTZAILEAK



	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Etxerik gabeak	% 1,4	% 16,6	% 6,5
Gutxiengo etnikoetako kideak	% 1,1	% 3,1	% 7,0
Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietako kideak	% 1,5	% 4,9	% 8,2
Seme-alabak dituzten langabeak	% 1,5	% 4,9	% 8,2
Beren ardurapean beste pertsona batzuk dituztenak	% 4,8	% 22,7	% 40,6
Osasun-arazoak edo gaixotasun kronikoak dituztenak	Daturik ez	% 2,9	% 1,1
Desgaitasunen bat dutenak	% 4,6	% 3,0	% 3,0

LURRALDEKA, HANDIA DA GIPIZKOAN BEREN ARDURAPEAN PERTSONAK DITUZTENEN PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA; BIZKAIAN, BERRIZ, ETXERIK GABEKOENA (% 16).

EMAKUMEEK GIZONEK BAINO BAZTERKETA-ADIERAZLE GEHIAGO DITUZTE, ETXERIK GABEKOEN KASUAN IZAN EZIK.

	Euskadi	Gizonak	Emakumeak
Etxerik gabeak	% 16,1	% 17,9	% 7,7
Gutxiengo etnikoetako kideak	% 3,6	% 2,6	% 6,6
Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familietako kideak	% 5,2	% 0,7	% 13,2
Seme-alabak dituzten langabeak	% 8,3	% 4,3	% 16,2
Beren ardurapean beste pertsona batzuk dituztenak	% 24,2	% 11,5	% 51,2
Osasun-arazoak edo gaixotasun kronikoak dituztenak	% 2,4	% 1,8	% 3,2
Desgaitasunen bat dutenak	% 3,2	% 2,3	% 3,9

PROGRAMAREN EGOKITZAPENA

● 1. SAREKO LANA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Funtsezkoa da sareko lana zenbait fenómeno konplexuri ekiteko (bazterketari, esate baterako), zenbait alorren arteko lankidetzaz errazten baitu.

Ezagutza partekatzeak aukera ematen die erakundeei.

Aukera ematen du eskaintza hobetzeko eta zabaltzeko, jende gehiagorengana iristeko eta EAE osoan jarduteko, ikasteko, metodologiak partekatzeak eta lanaren ondorioak eta inpaktuak lurraldearen maila desberdinetan aztertzeko.

● 2. ESPERIMENTAZIO ETA BERRIKUNTZARAKO FINANTZAKETA

Esperimentazio-esparru bat eraikitzeak aukera ematen du: estandarizatu gabeko proiektuak probatzeko.

Sendotu egiten ditu erakundearen beste programa edo jarduera-lerro batzuek estaltzen ez dituzten lan-lerroak..

Ibilbideak lantzeko aukera ematen du, estaldura integrala eta prozesu luzeagoak eskainiz.

● 3. MALGUTASUNA

Erraztu egiten du programa malguagoak antolatzea, lan-merkatutik urrutien daudenentzat egokituak.

Pertsonen behar eta egoeretara egokitzen da, epe ertain-luzera helburuak lortzeko.


Aukera ematen du trebakuntza-saioak urte osoan antolatzeko, ohiko deialdietako epeetatik landa.

● 4. EGONKORTASUNA, JARRAITUTASUNA ETA SENDOTU MARKA

Aukera ematen du zenbait urtetarako plangintza egiteko, egonkortasuna eta jarraitutasuna eskaintzeko urterik urte martxan jartzen diren jarduera-lerroei.

«Sendotu marka»-k lan egiteko era bat, metodologiak eta sareko programak eskaintzen dizkie zaugarritasun-egoeran dauden taldeei, inguruak, beste erakunde batzuek eta pertsonak ezagutu eta aintzatetsi dezaten.

Bazterketari gizarteratze-plan pertsonalizatu baten bidez ekiteko aukera eskaintzen du SENDOTU ALDIBEREANek, zenbait ekintza konbinatuz, guztiak ere pertsonen behar eta ezaugarrietara egokituak eta helburu hau dutenak: enplegarritasuna sustatzea (hots, pertsonak enplegu-eskaintzara egokitzeko duen ahalmena bultzatzea), eta lan-merkatuan hobeto kokatzeko jarrerak, interesak, motibazioak, ezagutzak, trebakuntza eta gaitasunak garatzea.



4. ERAGINKORTASUNA



OSO HANDIA DA SENDOTU ALDIBEREANEN ERAGINKORTASUN-MAILA BERE HELBURUEKIKO:

PARTE-HARTZAILEEN % 70 INTEGRATU DA HEZKUNTZA- edo PRESTAKUNTZA-SISTEMETAN, EDO KUALIFIKAZIOA EDO ENPLEGUA ESKURATU DU.

EMAITZAK

Orokorra

435

Epe horretan egin diren jarduketak.

% 70

hezkuntza- edo prestakuntza-sistemetan integratu diren edo kualifikazioa edo enplegua eskuratu duten parte-hartzaileen ehunekoa.

Kualifikazioa

% 16

Hezkuntza- zein prestakuntza-sistemetan integratu diren parte-hartzaileen ehunekoa.

+ % 21

Gizarteratze-ibilbideetako eta lan-aurreko lantegietako parte-hartzaileen kasuan.

% 31

Parte hartu ondoren kualifikazio bat lortu dutenen ehunekoa.

+ % 39

Enplegurako trebakuntza-saioretan parte hartu dutenen kasuan.

Enplegua

% 33

Programa amaitu eta handik sei hilabetera lanean ari diren parte-hartzaileen ehunekoa

Gizarteratze-enpresak

8

Sortu diren gizarteratze- eta gizarte-enpresa berriak.

9

Lehendik jardunean zeuden enpresetan martxan jarri diren jarduera-lerroak.

91


Sortu diren lanpostu berriak edo lehendik zeudenetatik mantendu direnak.





PROGRAMAREN GARAPENA

**435 JARDUERA EGIN DIRA
(60 JARDUERA URTEKO)**


a) PROGRAMAREN GARAPENA: ZER JARDUKETA EGIN DIREN.



JARDUEREN BANAKETA, LINTAMBEKA



EGINDAKO JARDUEREN BATEZ BESTEKO IRAUPENA



- Jardueren % 50en iraupena: hilabete eta hiru hilabete bitarte.
 - Jardueren % 20ren iraupena 240 lanegunetik gorakoa izan da (12 hilabetetik gorako iraupenaren baliokidea).
- % 18ren iraupena 20 lanegunetik beherakoa izan da (hilabeteren baliokidea).

(..) PROGRAMAREN GARAPENA

**JARDUEREN % 52k
ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA-
LERROA IZAN DU ARDATZ;
% 42K, BERRIZ, LAN-AURREKO
IBILBIDEAK ETA LANTEGIAK.**

(..) a) PROGRAMAREN GARAPENA: ZER JARDUKETA EGIN DIREN.

BERARIAZKO HELBURUAK	JARDUKETAK				
	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	KOPURUA	%
GIZARTERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK ETA LAN-AURREKO LANTEGIAK	105	74	5	184	% 42
ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETA	135	66	26	227	% 52
EKINTZAILETZARI BURUZKO TUTORETZA- ETA TREBAKUNTZA-JARDUERAK AUTOENPLEGUA BULTZATZEKO	8	0	0	8	% 2
GIZARTERATZEKO- ETA GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESAK SORTZEA ETA MANTENTZEA	14	2	0	16	% 4


BIZKAIAN EGIN DIRA GIZARTERATZEAREKIN ETA EKINTZAILETZAREKIN LOTUTAKO ENPRESEN JARDUERA IA GUZTIAK.




(..) PROGRAMAREN GARAPENA

b) PROGRAMAREN GARAPENA: IBILBIDEAK ETA LANTEGIAK.

GIZARATERATZEKO IBILBIDE INTEGRATUAK ETA LAN-AURREKO LANTEGIAK




184 JARDUERA EGIN DIRA 2015ETIK 2022KO EKAINERA ARTE; BATEZ BESTE, 24 JARDUERA URTEKO.



JARDUEREN % 76 TALDEKO IBILBIDEEI DAGOZKIE.

PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA: 3.039 LAGUN (% 54, GIZONAK; % 46, EMAKUMEAK), HAIETATIK % 63 TALDEKO JARDUERETAN. BATEZ BESTE, 17 PARTE-HARTZAILE IZAN ZITUEN JARDUERA BAKOITZAK.

Pisu handia izan dute emakumeek taldeko ekintzetan, eta txikiagoa lan-aurreko lantegietan eta arreta indibidualizatutako ibilbideetan.




BATEZ BESTE, 137 LANEGUN IRAUN DU JARDUKETA BAKOITZAK (7 BAT HILABETE).

BERARIAZKO HELBURUAK	JARDUKETEN ETA PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA				
	JARDUKETA-KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA	GIZONEZKO PARTE-HARTZAILEEN %	EMAKUMEZKO PARTE-HARTZAILEEN %	BATEZ BESTEKO PARTE-HARTZAILE KOPURUA JARDUKETAKO
IBILBIDEAK: TALDEKO JARDUKETAK	139	1.935	% 41,5	% 58,5	13,9
IBILBIDEAK: HASTAPENENKO IKASKUNTZA	5	79	% 59,5	% 40,5	15,8
IBILBIDEAK: BANAKAKO ARRETA	24	707	% 71,7	% 28,3	29,5
LAN-AURREKO IBILBIDEAK ETA LANTEGIAK	16	318	% 79,2	% 20,8	19,9
TOTAL	184	3.039	% 54	% 46	16,5

(..) PROGRAMAREN GARAPENA

c) PROGRAMAREN GARAPENA: ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA.

ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETA



227 JARDUERA EGIN DIRA 2015ETIK 2022KO EKAINERA BITARTE; BATEZ BESTE, 32 JARDUERA URTEKO, % 26 TREBAKUNTZA EGIAZTAGARRIAN ETA % 47 EZ-EGIAZTAGARRIAN.


BERARIAZKO HELBURUAK	JARDUKETAK ETA PARTE-HARTZAILEAK				
	JARDUKETA-KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK, GUZTIRA	GIZONEZKO PARTE-HARTZAILEEN %	EMAKUMEZKO PARTE-HARTZAILEEN %	BATEZ BESTEKO PARTE-HARTZAILE KOPURUA JARDUKETAKO
TREBAKUNTZA EGIAZTAGARRIA	59	741	% 39,7	% 60,3	12,56
OINARRIZKO GAITASUNEN GAINEKO TREBAKUNTZA	43	348	% 61,8	% 38,2	8,09
TREBAKUNTZA EZ-EGIAZTAGARRIA	106	1479	% 72,4	% 27,6	13,95
PRAKTIKALDI/TUTORETZEN BIDEZKO TREBAKUNTZA	18	761	% 81,3	% 18,7	42,06
GUZTIRA	226	3329	% 62	% 38	14,7

3.329 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE: GIZONAK, IA BI HEREN; JARDUERAKO BATEZ BESTEKO PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA, 15; SEXUAREN ARABERA, NABARMENTZEKO DA EMAKUMEEN KOPURUA TREBAKUNTZA EGIAZTAGARRIAN.

MULTZO PROFESIONALAK	TREBAKUNTZA EGIAZTAGARRIA		TREBAKUNTZA EZ-EGIAZTAGARRIA		GUZTIRA	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
ZERBITZU SOZIOKULTURALAK ETA SOZIALAK	31	% 53	5	% 5	36	% 22
MERKATARITZA ETA MARKETINA	11	% 19	19	% 18	30	% 18
OSTALARITZA ETA TURISMOA	10	% 17	29	% 27	39	% 23
NEKAZARITZA-ABELTZAINZTA	1	% 2	11	% 10	12	% 7
ELIKAGAIEN INDUSTRIA	5	% 9	-	-	5	3%
IRUDI PERTSONALA	-	-	2	% 2	2	% 1
EHUNGINTZA	-	-	2	% 2	2	% 1
ENERGIA ETA URA	-	-	2	% 2	2	% 1
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	-	-	1	% 1	1	% 1
ZURGINTZA, ALTZARIGINTZA, KORTXOGINTZA	-	-	6	% 6	6	% 4
INFORMATIKA	-	-	2	% 2	2	% 1
FABRIKAZIO MEKANIKOA	-	-	7	% 7	7	% 4
ZENBAIT LANBIDE	-	-	9	% 8	9	% 5
TREBAKUNTZA OSAGARRIA	1	1%	11	% 10	12	% 7

ZERBITZU SOZIOKULTURALAK ETA SOZIALAK, MERKATARITZA ETA MARKETINA, OSTALARITZA ETA TURISMOA, ETA NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA MULTZO PROFESIONALEK OSATZEN DUTE TREBAKUNTZA-JARDUKETEN % 7.

20



BATEZ BESTE, 71 LANEGUN IRAUN DU JARDUKETA BAKOITZAK (LAU HILABETE).




(..) (..) PROGRAMAREN GARAPENA

D) PROGRAMAREN GARAPENA: GIZARATERATZE- ENPRESAK ETA EKONOMIA SOZIALEKOAK.

GIZARATERATZE-ENPRESAK ETA EKONOMIA SOZIALEKOAK SORTZEA ETA MANTENTZEA

HONA 2015ETIK 2022KO EKAINERA BITARTEAN SENDOTU ALDIBEREANEK BULTZATUTAKO JARDUTEN EMAITZAK:


- GIZARATERATZEKO ETA GIZARTE-EKONOMIAKO 8 ENPRESA .
- 9 NEGOZIO-LERRO LEHENDIK MARTXAN ZEUDEN ENPRESETAN.
- 14 ENPRESA SENDOTZEA ETA MANTENTZEA.



262 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE, HORIETATIK % 32K SORTUTAKO ENPRESA EDO NEGOZIO-LERRO BERRIETAN.

PARTE-HARTZAILEEN % 73 GIZONAK IZAN DIRA.

GIZARATERATZEKO ETA EKONOMIA SOZIALEKO ENPRESETAN PARTE HARTU DUTENAK






EMAITZAK

BATEZ BESTE, 16 LAGUNEK HARTU DUTE PARTE JARDUERA BAKOITZEAN.

a) PARTAIDETZA.


OSO HANDIA DA PARTAIDETZA-MAILA, KONTUAN HARTURIK SENDOTU ALDIBEREANEN PROGRAMAN ESKU HARTZEN DUTENEN ZAILTASUN PERTSONALAK ETA BIZITZA-INGURUABAR ALDAKORRAK.

JARDUERAREN BATEAN HASI ETA PROGRAMA GARAIZ AURRETIK UZTEN DUTENEN % 6K ARRAZOI HONEGATIK EGITEN DU: LANEAN HASI DELAKO EDO BESTE TREBAKUNTZA-SAIOREN BATI EKIN DIOLAKO.



PARTE-HARTZAILEEN % 87K AMAITU EGITEN DU JARDUERA (GIZONEN % 87,7K ETA EMAKUMEEN % 87,1EK). JARDUERA GARAIZ AURRETIK PROGRAMA UZTEN DUTENEN PORTZENTAJEA % 12,6 DA (GIZONAK, % 12,3; EMAKUMEAK, % 12,9).

PROGRAMA GARAIZ AURRETIK UZTEAREN ARRAZOIAK



GIZONEN % 55EN KASUAN, ENPLEGUA EDO TREBAKUNTZA DIRA PROGRAMA GARAIZ AURRETIK UZTEAREN ARRAZOI NAGUSIAK; EMAKUMEEN ARTEAN, BERRIZ, % 37RA JAISTEN DA EHUNEKO HORI, ETA GARRANTZI HANDIAGOA DUTE GAIXOTASUNEK ETA BESTE ARRAZOI BATZUEK.



(..) EMAITZAK: PROGRAMAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

b) PROGRAMAKO ADIERAZLEEN BETETZE-MAILA.

PE-AREN BERARIAZKO HELBURUAK

LAN-MERKATUKO PARTAIDETZA
AREAGOTZEA, ARRETA BEREZIA IPINIZ TALDERIK ZAURGARRIENETAN, ETA ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA.

LAN-MERKATUAREN BEHARRETARA EGOKITZEA HERRITARREN KUALIFIKAZIO-MAILA, BATEZ ERE LANGABEENA.

ETE SORTU BERRIEN ENPRESA-KULTURA ETA LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA.


INKLUSIO AKTIBOA, AUKERA-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA SUSTATZEA.

SENDOTU ALDIBEREANEN JARDUN DIRENEN % 70 HEZKUNTZA- EDO TREBAKUNTZA-SISTEMETAN INTEGRATU DA, EDO KUALIFIKAZIO-MAILAREN BAT EDO ENPLEGU BAT LORTU DUTE. EMAKUMEEN ARTEAN, % 75 DA PORTZENTAJEA (LAUTIK HIRU).

SENDOTU ALDIBEREAN: EMAITZEN ADIERAZLEAK	PARTE-HARTZAILEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
KUALIFIKAZIO-MAILA BAT EDO ENPLEGU BAT LORTZEN EDO HEZKUNTZA- EDO TREBAKUNTZA-SISTEMETAN INTEGRATZEN DIREN PARTE-HARTZAILEAK, BAZTERKETA JASATEN DUTENAK EDO JASATEKO ARRISKUAN DAUDENAK	4.856	2.646	2.210
PROGRAMAN PARTE HARTU ONDOREN HEZKUNTZA- EDO TREBAKUNTZA-SISTEMETAN INTEGRATU DIRENAK	1.097	773	324
PROGRAMAN PARTE HARTU ONDOREN KUALIFIKAZIO-MAILA BAT LORTU DUTENAK	2.164	1.060	1.104
PROGRAMAN PARTE HARTU ONDOREN ENPLEGUA LORTU DUTENAK, NORBERAREN KONTURAKO BARNE	2.121	1.134	987

- **PARTE-HARTZAILEEN % 16 INTEGRATU DA TREBAKUNTZA- EDO HEZKUNTZA-SISTEMETAN; EMAKUMEEN KASUAN, % TI.**
- **% 26K LORTU DU ENPLEGUA (EMAKUMEEN ARTEAN, % 28K); SEI HILABETE GEROAGO, % 33RA IGOTZEN DA PORTZENTAJEA.**
- **% 32K LORTZEN DU KUALIFIKAZIO-MAILAREN BAT (EMAKUMEEN ARTEAN, % 37K).**

PROGRAMAKO ADIERAZLEEN BETETZE-MAILA





(..) EMAITZAK: PROGRAMAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

«INKLUSIO AKTIBOA,
AUKERA-BERDINTASUNA
ETA DISKRIMINAZIOK EZA
SUSTATZEA»

% 16

Hezkuntza- edo
trebakuntza-
sistemetan
integratu diren
parte-hartzaileen
ehunekoa (1.097
lagun).

**HOBEAK DIRA HAUEN EMAITZAK:
GIZONENAK, 25 URTETIK BEHERAKOENAK,
MIGRATZAILEENAK, LANGABEENAK ETA
IKASKETARIK GABEENAK.**

+ % 21

Gizarteratze-
ibilbideetan eta lan-
aurreko lantegietan
jardun diren parte-
hartzaileen
ehunekoa.

% 31

Programan
jardun ondoren
kualifikazio-
mailaren bat
lortu duten parte-
hartzaileen
ehunekoa.

**HOBEAK DIRA HAUEN EMAITZAK:
EMAKUMEENAK, 55 URTETIK
GORAKOENAK, MIGRATZAILEENAK,
LANGABEENAK ETA HNSN 1 EDO HNSN 2
IKASKETA-MAILAK DITUZTENENAK.**

+ % 39

Enplegurako
trebakuntza-saioretan
izan diren parte-
hartzaileen
ehunekoa.

% 26

Programa
amaitzean
enplegua lortu
duten parte-
hartzaileen
ehunekoa.

**HOBEAK DIRA HAUEN EMAITZAK:
EMAKUMEENAK, 55 URTETIK GORAKOENAK,
DESGAITUENAK ETA IRAUPEN LUZEKO
LANGABEZIA-EGOERAN DAUDENENAK.**

+ % 33


Programa
amaitu eta sei
hilabetera,
2.121 lagunek
lortu dute
enplegua.




(..) EMAITZAK: PROGRAMAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

«INKLUSIO AKTIBOA, AUKERA-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA SUSTATZEA»

PROGRAMA AMAITU ONDOREN, 1.097 LAGUN (PARTE-HARTZAILEEN % 16) HASI DIRA TREBAKUNTZA-SAIOAK EGITEN HEZKUNTZA- ETA TREBAKUNTZA-SISTEMA FORMALETAN.



GIZARTERATZE-IBILBIDE INTEGRATUETAN EDO LAN-AURREKO LANTEGIETAN PARTE HARTU DUTENEN ARTEAN, % 21 HEZKUNTZA- EDO TREBAKUNTZA-SISTEMAN INTEGRATU DA.




HOBEEK DIRA HAUEN EMAITZAK: GIZONENAK, 25 URTETIK BEHERAKOENAK, MIGRATZAILEENAK, LANGABEENAK ETA IKASKETARIK GABEENAK.



(..) EMAITZAK: PROGRAMAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA


«LAN-MERKATUAREN BEHARRETARA EGOKITZEA HERRITARREN KUALIFIKAZIO-MAILA, BATEZ ERE LANGABEENA»

PROGRAMA AMAITU ONDOREN, KUALIFIKAZIO-MAILAREN BAT LORTU DUTE 2.164 LAGUNEK, % 31,4K.



HOBEEK DIRA HAUEN EMAITZAK: EMAKUMEENAK, 55 URTETIK GORAKOENAK, MIGRATZAILEENAK, LANGABEENAK ETA HNSN 1 EDO HNSN 2 IKASKETA-MAILAK DITUZTENENAK.

ENPLEGURAKO TREBAKUNTZA-SAIOETAN PARTE HARTU DUTENEN ARTEAN, % 39 DA KUALIFIKAZIO-MAILAREN BAT LORTU DUTENEN EHUNEKOA.






(..) EMAITZAK: PROGRAMAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

«LAN-MERKATUAN PARTE-HARTZE HANDIAGOA IZATEA (BATEZ ERE TALDE ZAURGARRIENEK), ETA ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA»

PROGRAMA AMAITU ONDOREN, PARTE-HARTZAILEEN % 26K ESKURATU DU ENPLEGU BAT; SEI HILABETE GEROAGO, BERRIZ, % 33RA IGOTZEN DA EHUNEKOA (2.121 PARTE-HARTZAILE).



HOBEAK DIRA HAUEN EMAITZAK: EMAKUMEENAK, 55 URTETIK GORAKOENAK, DESGAITUENAK ETA IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA-EGOERAN DAUDENENAK.

GIZARATERATZE-ENPRESAK ETA GIZARTE-EKONOMIAKOAK SORTZEN ETA MANTENTZEN JARDUN DIREN PARTE-HARTZAILEEI DAGOKIENEZ, 21 LANPOSTU BERRI SORTU DIRA 2015ETIK 2021EKO EKAINERA ARTE, NEGOZIO-LERRO ETA ENPRESA BERRIETAN.

BESTALDE, LEHENDIK GIZARATERATZE-ENPRESETAN ZEUDEN 70 LANPOSTURI EUSTEKO LAGUNTZA EMAN DA.

GIZARATERATZE-ENPRESETAN ETA GIZARTE-EKONOMIAKOETAN ENPLEGUA SORTZEKO ETA MANTENTZEKO EKINTZEK EKARRI DITUZTEN EMAITZAK	PARTE-HARTZAILEAK
GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESETAN ENPLEGUA MANTENTZEN DUTEN PARTE-HARTZAILEAK	70
SORTUTAKO NEGOZIO-LERRO ETA GIZARATERATZE-ENPRESETAN ZEIN GIZARTE-EKONOMIAKOETAN ENPLEGUA LORTU DUTEN PARTE-HARTZAILEAK	21 (*)

(*) 2022aren amaierarako, 31 izan daitezke sortutako lanpostu berriak

(..) 4. ERAGINKORTASUNA



(..) EMAITZAK: PROGRAMAKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

«ETE SORTU BERRIEN ENPRESA-KULTURA ETA LEHIAKORTASUNA SUSTATZEA»

DIRUZ LAGUNDUTAKO EPEAN BULTZATUTAKO EKINTZEI ESKER, GIZARTE-EKONOMIAKO 8 ENPRESA BERRI SORTU DIRA (7, GIZARATERATZE-ENPRESAK) ETA 9 NEGOZIO- ETA MERKATU-LERRO ABIARAZI DIRA LEHENDIK MARTXAN ZEUDEN ENPRESETAN, GUZTIAK ERE BAZTERKETA JASATEN DUTEN EDO JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN ETA KUALIFIKAZIO-MAILARIK URRIENA DUTEN HERRITARREN EZAUGARRIETARA EGOKITUTAKO JARDUERA-EREMUETAN.

JOSTUNBIDE SL
CPTX SL
PERPETUMSTORE SL
SUKALBIDE HOSTELERÍA SL
EUREKA S. COOP.
BESTELAN
GIZARTELUR
EKOITZI

SEKTOREAK: EHUNGINTZA,
OSTALARITZA, JATETXEAK ETA
OTORDU-ZERBITZUAK,
INDUSTRIARAKO ZERBITZU
OSAGARRIAK, NEKAZARITZA
EKOLOGIKOKO LABOREAK ETA
EKOIZPENA.

**8 ENPRESA
BERRI**

GERTUART
SOKAIRE
CPTX S.L.
ITURRITEK SL
EKOIZAN
KOOPERA
LAPIKO CATERING

JARDUERAK: HIRIKO ARTE
INKLUSIBOA, GARBIKETA ETA
ATEZAINZTA, EHUNGINTZA,
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK,
AZPIKONTRATAZIO
INDUSTRIALA, KONTSERBAK
ETA ELIKAGAIK
ERALDATZEA ETA
MERKATURATZEA.

**9 NEGOZIO-
LERRO**

**14 ENPRESAK
JASO DUTE
LAGUNTZA**

ZENBAIT EKINTZAREN BIDEZ LAGUNDU DUTE LANPOSTUAK MANTENTZEN GIZARTE-EKONOMIAKO 14 ENPRESATAN, GUZTIAK ERE CÁRITAS BIZKAIA, GAZTAROA SARTU KOOP. ELK., PEÑASCAL KOOP. ETA AGIANTZA ELKARTEA PARTAIDE DITUZTENAK.

SEKTOREAK:
AISIA ETA ANIMAZIOA,
GARBIKETA, ERAIKUNTZA,
ZURGINTZA, MEKANIZAZIOA,
EGITURA METALIKOAK,
SOLDADURA, OSTALARITZA,
JATETXEAK ETA OTORDU-
ZERBITZUAK, ELIKADURA
EKOLOGIKOKO
MERKATARITZA, BIDEZKO
MERKATARITZA, ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK,
HONDAKINAK BILTZEA ETA
BIRZIKLATZEA,
MENDEKOTASUNA DUTENAK
ZAINZTEA, BARAZKIAK ETA
FRUTAK EKOITZI, ERALDATU
ETA BANATZEA.

SOKAIRE
ZURTEK SL
LAIATZEN SL
IZARZA SL
LAPIKO CATERING SL
EKOIZAN SL
ITURRITEK SL
SUKALBIDE
KIDENDA
HOSTELERIA PEÑASCAL SL
KOOPERA S. AMBIENTALES
ZAINZALAN
GIZARTELUR SL

FAKTORE HAUEI ESKER LORTZEN DITU EMAITZA ONAK SENDOTU ALDIBEREANEK:

Antolakuntza-sistema, proiektuaren kudeaketa eta koordinazio-egiturak

BATZORDE
TEKNIKOA

ERAKUNDE GUZTIEK HARTZEN DUTE PARTE, ETA CÁRITAS DU BURU. BESTEAK BESTE, TXOSTENAK ETA, PROGRAMAREN AGIRIAK PRESTATZEN DITU.

BATZORDE
EKONOMIKOA

F. PEÑASCAL DU BURU. BESTEAK BESTE, PROGRAMAREN EKONOMIA KUDEATZEAZ ETA JARRAIPENA EGITEAZ ARDURATZEN DA.

BATZORDE
OROKORRA

SARTU DU BURU. BESTEAK BESTE, ERAKUNDEEN ARTEKO ORDEZKARITZAZ, FINANTZAKETA BILATZEAZ, ERAKUNDE PUBLIKOEDIKIO HARREMANEZ ARDURATZEN DA.

KOMUNIKAZIOA,
EUROPA

KOMUNIKAZIOA: SARTU ARABA ETA CÁRITAS DITU BURU. EUROPAKO ORDEZKARITZA: AGIANTZA DU BURU.

Antolakuntza- eta koordinazio-egituraren balorazioa positiboa da. Etorkizunera begira, prozesurik zeharkakoanek partekatze eta erakundeen arteko sareko lanean aurrera jarraitzeko eremuak sortu behar dira, edo baliabideak erabili.



1. Metodologiak partekatzea eta lan-prozesu komunak adostea.

«Decas» deritzen laneko fitxak prestatu ziren, **jarduera-lerro bateratuak zehazteko**. Sareko lan horri esker, hobetu egin da erakundeen elkar-ezagutza, bai eta erakunde bakoitzaren lan-prozesuak ere.



2. Tresna komunak, urteko programazioa prestatzeko eta emaitzen zein inpaktuen jarraipena egiteko eta haiek neurtzeko.

Hobekuntzak behar dituzte tresna horiek. Izan ere, Lanbideren aplikazioa eta programak berak sortutakoa **ez dira oso egokiak programaren alderdi guztiak neurtzeko edo haien jarraipena egiteko**. Beste zenbait arazoren artean, aipatzekoak dira hauek: erregistratutako jende-kopurua baino askoz gehiago artatu dira (esate baterako, Lanbiden), edo ezin izan da jakin ibilbideak hasi zituztenetatik zenbat hasi diren lanean edo zenbatek ekin dieten beste trebakuntza-jarduera batzuei.



3. Erakundeen eta tokiko zein lurraldeko kanpo-eragileen arteko konexioak.

Konexio horiei esker, baliabide ezaguna da Sendotu, programa sendoa eta egonkorra du, eta kanpoko eragileek aintzat hartzen dute deialdi guztietan. Etorkizunera begira, funtsezkoa da eragile horiekiko koordinazioa lantzen jarraitzea, erakunde bakoitzaren jarduera-eremuan.



(..) FAKTORE HAUEI ESKER LORTZEN DITU EMAITZA ONAK SENDOTU ALDIBEREANEK:

Giza baliabideen eta baliabide tekniko zein ekonomikoen egokitzea

PROGRAMAREN EPE OSOAN, TESTUINGURUAREN ERRONKEN ETA AUKEREN ARABERA ALDATU DIRA JARDUKETA GEHIENAK, BATEZ ERE PERTSONEN BEHAR ETA ESKAKIZUNETARA HOBETO EGOKITZEARREN.

ANTOLAKUNTZAREN MALGUTASUNARI ESKER, PERTSONEN BEHAR ETA INGURUABARRETARA EGOKITU AHAL IZAN DIRA JARDUKETAK, ETA PROGRAMAREN UZTE-TASA OSO BAXUAK LORTU, KONTUAN IZANIK PARTE-HARTZAILEEN ZAILTASUNAK ETA TALDEEN ANIZTASUNA.

ERABILTZAILEEN MOTIBAZIOA



AHALEGIN HANDIA EGIN DUTE PARTE-HARTZAILEEK GIZARTERATZE- ETA TREBAKUNTZA-PROZESUETAN.

LAGUNTZA




PROZESU OSOAN (ORIENTAZIOA, BABESA ETA KOORDINAZIOA) ABEGITASUNA IZAN DA NAGUSI, PROZESUAK ERRAZTEARREN. IKUSPEGI PERTSONALIZATUA ETA INTEGRALA ERABILI DA: ESKU-HARTZE SOZIALA ETA LAGUNTZA PSIKOSOSIALA ETA EMOZIONALA.

TREBAKUNTZA, LAN-MUNDUARI LOTUA ETA MALGUA, PROFILEI EGOKITUA



GARRANTZITSUA DA PARTE-HARTZAILEEI IBILBIDEA ETA TREBAKUNTZA ERABILGARRI IRUDITZEA; HAU DA, LAN EGITEKO AUKERAK JORRATZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO BALIAGARRIAK, MALGUAK, ETA EUREN PROFILEI, PRESTAKUNTZARI ETA BEHARREI EGOKITUA.

PROFESIONALEN ESKU-HARTZEA



HEZITZAILEAK: PERTSONENTZAKO FIGURA ERREFERENTEAK, PROZESU OSOAN ZEHAR LAGUNTZEN DIETENAK, BAITA AMAITU ONDOREN ERE.
PRESTATZAILEAK: BATETIK IRAKASLEAK ETA BESTETIK LAGUNTZAILEAK DIRENAK., INPLIKAZIO HANDIA DUTE.

JARRAITUTASUNA



PERTSONENA: FUNTSEZKOA ARRETA PERTSONALIZATUA ESKAINTZEKO ETA ERREFERENTZIAKO ERAGILE PROFESIONALAK IZATEKO.
PROZESUENA ETA BALIABIDEENA: AUKERA EMATEN DU ERRITMO ETA EGOERA DESBERDINETAKO PERTSONAK ARTATZEKO ETA EKINTZAK NORBERAREN EGOERARA EGOKITZEKO GIZARTERATZE-PROZESUAN.



ZER MANTENDU

Laguntza pertsonalizatua

prozesu osoan

Malgutasuna

jarduerak planifikatzeko

Baliabideak eta prozesua

Sendotu Aldibereanek eskaintzen dituenak

Izaera integrala

trebakuntzaren eta lanaren ikuspegitik harago

Konpromisoa

profesional guztiena, zeinak erreferentzia bihurtu baitira parte-hartzaileentzat, eta haien jarraitutasuna

Irismen handiagoa

Berrikuntza handiagoa

Epe ertaineko jarraipena

Kudeaketa

ZER HOBETU

ZUZKIDURA EKONOMIKOA HANDIAGOA BALITZ, JENDE GEHIAGORENGANA IRITSIKO LITZATEKE PROGRAMA (IZAN ERE, AREAGOTZEN ARI DA ESKARIA), EDO PERTSONEKIN JARDUTEKO LERRO GEHIAGO JARRIKO LIRATEKE MARTXAN.

BERRIKUNTZA SENDOTU BEHARKO LITZATEKE ZAURGARRITASUN-MAILA HANDIKO TALDEEKIKO LANEAN, ETA PROGRAMAREN BETETZE-MAILAREN ADIERAZLEEN EGOKITASUNA HOBETU, BAI ETA ONURADUN IZAN DAITEZKEENEN HASIERAKO SARBIDERAKO BALDINTZAK ERE.

AUKERA EMATEN DU SENDOTUK SEI HILABETEREN BURUAN PERTSONEN LAN-EGOERA AZTERTZEKO, BAINA EPE ERTAINEN JARRAIPENA BEHAR DA, PERTSONEN ASKOTARIKO ALDERDIEN HOBEKUNTZAN JARDUKETEK DUTEN INPAKTUA HOBETO EZAGUTZEKO,

EZ DAGO BERARIAZKO FINANTZAKETARIK KUDEAKETA-KOSTUETARAKO, PLANGINTZA-JARDUERETARAKO ETA KOORDINAZIORAKO (BARNEKOA EDO BESTE ERAGILE BATZUEKIN BATERAKOA); EZ DAGO FINANTZAKETARIK PROIEKTUEN ARDURADUNEI ETA BITARTEKARIEI ORDAINTZEKO, KARGU BIAK FUNTSEZKOAK DIREN ARREN.

6. INPAKTUA



INPAKTU OSO POSITIBOAK IZAN DITU SENDOTU ALDIBEREANEK PROGRAMAN PARTE HARTU DUTENEN BIZITZAN ETA ALOR SOZIAL ZEIN PROFESIONALETAN, PROGRAMAREN ONDORIO ETA EFEKTUEI BURUZKO AZTERKETAK NABARMENTZEN DUENEZ, ETA EMAITZA KUANTITATIBOETATIK HARAGO IRISTEN DA INPAKTU HORIEN ERAGINA.

ERAKUNDEEK NABARMENTZEN DITUZTEN INPAKTUAK

BIZITZA NORMALIZATZEN ETA GIZARTERATZEN LAGUNTZEN DUTE IBILBIDEAK, ETA ALDE GUZTIETATIK EGITEN DIOTE AURRE BAZTERKETARI; BESTALDE, ZUBILANA EGITEN DUTE BI TALDE HAUEN ARTEAN: GIZARTERATZE-PROIEKTUEN OHIKO ERABILTZAILERAK (ETXEBIZITZA-ESKATZAILERAK...) ETA LANERAKO TREBAKUNTZA ARAUTU TRADIZIONALA JASOTZEN DUTENAK.

BIZITZA NORMALIZATZEN ETA GIZARTERATZEN LAGUNTZEN DUTE IBILBIDEAK, ETA ALDE GUZTIETATIK EGITEN DIOTE AURRE BAZTERKETARI; BESTALDE, HOBETU EGITEN DUTE GIZARTETIK BAZTERRERA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENEN KOHESIO SOZIALA.

IZAN ERE, IKUSGARRITASUNA, ESTALDURA ETA ERANTZUNA EMATEN DIOTE TALDE JAKIN BATZUEN BEHARREI

ALDEZ AURREKO ALORRAK JORRATZEN DITUZTE (FUNTSEZKOAK ETORKIZUNEN JARDUNERAKO) ETA GIZARTERATZE-PROZESUEKIKO LOTURA SORTZEN; BESTALDE, HOBETU EGITEN DUTE ESKU-HARTZE SOZIALA ETA GIZARTERATZEA

HELBURUAK: LEHENTASUNA PERTSONEI EMATEA, HAIEN BIZITZAKO UNEETARA EGOKITZEA ETA "NEURRIRAKO" PROGRAMAK SORTZEA, BERARIAZKO BEHARREN ETA AUKEREN ARABERA


Lanbideratzen ez ezik, gizarteratzen ere laguntzen du SENDOTU ALDIBEREANek, eta aukera ematen du autonomia handiagoz jarduteko eta bizitzaz osoki gozatzeko.

PARTE-HARTZAILEEK NABARMENTZEN DITUZTEN INPAKTUAK


- 1 AUKERA EMATEN DU NORBERAREN TREBAKUNTZA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO
- 2 AREAGOTU EGITEN DIRA AUTONOMIA ETA ASKATASUNA, HOBETU EGITEN DIRA AUTOESTIMUA ETA SEGURTASUNA
- 3 MOTIBAZIO HANDIA EPE LUZERAKO ENPLEGAGARRITASUNARI EKITEKO
- 4 LAN-MERKATURA SARTZEKO AUKERA HOBETZEA, BAI ETA KUALIFIKAZIO-MAILA IGOTZEKO BESTE TREBAKUNTZA BATZUETARAKOA ERE
- 5 OINARRIZKO TREBETASUNAK ESKURATZEA; ESATE BATERAKO, HIZKUNTZA
- 6 LANERAKO OHITURA EGOKIAK HARTZEA; BESTEAK BESTE, IRAUNKORTASUNA ETA ARDURA
- 7 LAN EGONKORRAGOAK ETA NORMALIZATUAGOAK LORTZEKO AUKERA
- 8 SARE SOZIAL ZABALAGOAK ETA SENDOAGOAK
- 9 BIZITZA SOZIALA BERRESKURATZEKO OINARRIAK EZARTZEKO AUKERA
- 10 OINARRIZKO KONTZEPТУAK LORTZEA GIZARTEAREN ZAKO BALIO HANDIKO DEN LAN-ARLO BATEAN
- 11 INTEGRAZIO KULTURALERAKO AUKEREN HOBETUNTZA
- 12 BIZITZAKO ZENBAIT ALORRETARAKO LAGUNTZARAKO ETA ERREFERENTZIAKO PERTSONAK AURKITZEA



ERAKUNDEEK NABARMENTZEN DITUZTEN INPAKTUAK



PARTE-HARTZAILEEK NABARMENTZEN DITUZTEN INPAKTUAK





HALABER, PROGRAMAREN ONDORIOEI BURUZKO BALORAZIOAK JASO DIRA, PARTE-HARTZAILEEN ESPERIENTZIARI ZEIN HAIEN BIZITZAN ERAGITEN DUEN HOBEKUNTZARI DAGOZKIONAK, LAU AZPIATALETAN SAILKATUAK: GARAPEN SOZIALA, ZERBITZU PUBLIKOEN ESKURAGARRITASUNA, LAGUNTZA ETA TRATUA.

ORO HAR, OSO POSITIBOA DA BALORAZIOA: ERAKUNDEEN ETENGABEKO LAGUNTZA AZPIMARRATZEN DUTE PARTE-HARTZAILEEK, ZEINEK ERREFERENTZIATZAT BAITAUKATE, BAI PROGRAMA-GARIAIN BAI ONDOREN

BIZIMODUAN ERAGIN DIEN HOBEKUNTZAREN BALORAZIOA		ESPERIENTZIAREN BALORAZIOA	
Garapen soziala	Zerbitzu publikoen eskuragarritasuna	Laguntza	Tratua
<p>Trebakuntza lagungarria da isolamendua eten eta gizarteratzea sustatzeko: segurtasuna, konfiantza, autoestimua eta jarraitzeko motibazioa ematen dizkie.</p>	<p>Lagungarria lan- eta bizileku-baimenak eskuratzeko.</p>	<p>Gizarte-langileak, hezitzaileak eta trebatzaileak erreferenteak dira pertsona horientzat, bizitzako edozein behari erantzuteko. Trebakuntzarekin zuzeneko loturarik ez duten arazoengatik ere haiengana jotzen dute.</p>	<p>Tratu indibidualizatu eta pertsonalizatu.</p>
<p>Sare sozial zabalagoak eta sendoagoak eraikitzen dira.</p>	<p>Hobetu egiten du zerbitzu publikoen ezagutza-maila (osasun-zerbitzuak, trebakuntzakoak, gizarte-babeseakoak...).</p>	<p>Orientatzaileekin egiten dute ibilbide osoa programako partaideek, gogotsu esku hartuz.</p>	<p>Tratu oso abegitsua, hurbila eta erraza.</p>
<p>Gizarteratze hobea: talde edo familia bateko kide bihurtzen da parte-hartzailea.</p>	<p>Hobetu egiten du bizi diren gizarteko eskubideen eta betekizunen gaineko ezagutza.</p>	<p>Baldintzarik gabeko laguntza ematen zaie prozesu osoan, bai eta haren aurretik eta ondoren ere.</p>	<p>Sentiberatasun eta humanismo handiak, bizitza pertsonaletan eragin oso positiboa dutenak.</p>
<p>Emakumeentzako gune seguruak sortzen dira, ahalduntze-gaiak jorra Ditzaten.</p>			<p>Programa amaitu ondoren ere eutsi egiten zaio harremanari.</p>

Asko aldatu eta hobetu da nire autoestimua: **«Zulotik irten gara».**

Inguru seguru batean nengoela sentitu dut, nire eguneroko bizimoduan aipatu ezin ditudan gaiei buruz hitz egin dezakedala.

Trebakuntza eskura izateak eta baimenak eskuratzek bizitza aldatu didate.

Gizarte-laguntzaileen babesik eta motibaziorik gabe, ez nukeen inoiz ikastaroa amaituko, edo eskaini zizkidaten lan-eskaintzak jasoko.

Gure ondoan izaten ditugu gizarte-langileak, harik eta ikasi beharrekoa ikasten dugun arte.

Etorkizunera begirako gogoetak



PROFILAK

Jarraitutasuna:

Krisiak eta gaitasun-eskarien aldaketak desberdinkeria handiagoak ari dira eragiten lan-merkatura sartzeko aukeran; hori dela eta, enplegarritasun-ibilbide luzeagoak eskaini behar zaizkie herritar askori.

Sendotu beharrekoa:

Immigrazioa izango da elementurik aldakorrenetako bat; halaber, sendotu egin behar da bazterketa jasaten edo jasateko arriskuan dauden **emakumeen** arreta.

Berriak:

Arreta berezia egin behar zaie 70 urtera arte lanean jarraitu behar duten **55 urtetik gorakoei**.



LAN-LERROAK

Alderdi askoko ikuspegia beharko da aurrerantzean ere herritarren **bazterketari aurre egin** eta haien beharrak eta gabeziak asetzeko, eta alor askotan jardun bizimodu prekarioaren aurka: etxebizitzan, klima-aldaketan...

Sendotu egin behar dira aplikatzen diren berrikuntza-eta ikerketa-jarduerak. Ugariak izan daitezke berrikuntza-eremuak: erosketa publikoa, merkatu babestuak, eskulan intentsiboa behar duten jarduera berritzaileak edo **“oinarrizko lana” kontzeptuari dagozkion formulak probatu.**

Erronka teknologikoari eta berrikuntza digitalari aparteko garrantzia eman behar zaie: sektore, makineria eta tresna guztietan txertatu behar dira, bai eta baliabide eta metodologia didaktikoetan ere (ikaskela digitala, adibidez).



TRESNAK ETA BALIABIDEAK

Administrazio publikoekiko transferentzia, komunikazioa eta elkarlana. Lurralde-mailan lan egiten jarraitu behar da, **eragile sozial eta ekonomikoekin**, eta sendotuz joan **sortutako ezagutza eta beste politika zein programa batzuetarako transferentzia.**

Esfortzu handiagoa egin behar da parte-hartzaileak, haiekiko lana eta emaitzak agerian jartzeko, bai gizartean bai haiek diharduten komunitateetan. Garrantzizkoa da, bestalde, **egungo jarraipen- zein ebaluazio-tresnak eta aplikazioak hobetzea.**

Komenigarria izan daiteke **beste profil tekniko-profesional eta baliabide batzuk erabiltzea**, gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuak sendotzeko: psikologoak, proiektu-arduradunak...